

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### HEZKUNTZA SAILA

## 1510

*EBAZPENA, 2019ko martxoaren 8koa, Langileriaren Kudeaketako zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baitira zuzendari beraren 2018ko uztailaren 26ko Ebazpenak. Ebazpen horien bidez argitaratu ziren, batetik, lehiaketa-faseko izangaien behin betiko puntuazioak, Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritza Unitateek barematutako merezimenduei dagozkienak, eta fase horretako guztizko puntuazioak, eta, bestetik, Hezkuntzako sailburuaren 2018ko otsailaren 26ko Aginduaren bidez iragarritako hautaketa-prozeduran hautatutako izangaien behin betiko zerrendak.*

Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2018ko uztailaren 26ko Ebazpenen bidez argitaratu ziren, batetik, lehiaketa fasean izangaiek eskuratutako behin betiko puntuazioak, Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritza Unitateek barematutako merezimenduei dagozkienak, eta, bestetik, fase horretako guztizko puntuazioak, Hezkuntzako sailburuaren 2018ko otsailaren 26ko Aginduaren bidez iragarritako hautaketa-prozeduretan (2018-02-27ko EHAA).

Langileriak Kudeatzeko zuzendariaren 2018ko abuztuaren 2ko Ebazpenaren bidez, hautatutako izangaien behin betiko zerrendak argitaratu ziren.

Xabier Etxano Egiak aipatutako hautaketa-prozeduran parte hartu zuen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen kidegoko Makinen Mekanizazioa eta Mantentzea espezializazioan, txanda librean, eta hautatua izan zen, 6,7972 puntuko puntuazio globalarekin (lehiaketa-faseko puntuazio haztatuak eta oposizio-fasekoak batzearen emaitza).

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2018ko abuztuaren 2ko Ebazpenaren aurkako gorako errekurtsioa aurkeztu eta gero, Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 7ko Aginduaren bidez aintzat hartua izan zen, eta, I. apartatuan (Aurretiko irakaskuntza-esperientzia), 5,9910 puntu aitortu zitzaizkion, eta, beraz, 6,8340 puntuko guztizko puntuazioa esleitu.

Hori guztia kontuan izanik, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2018ko uztailaren 26ko Ebazpenak, Xabier Etxano Egiari esleitutako puntuazioari dagokionez. Ebazpen horien bidez argitaratu ziren, batetik, lehiaketa fasean izangaiek eskuratutako behin betiko puntuazioak, Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritza Unitateek barematutako merezimenduei dagozkienak, eta, bestetik, fase horretako guztizko puntuazioak, Hezkuntzako sailburuaren 2018ko otsailaren 26ko Aginduaren bidez iragarritako hautaketa-prozeduretan. Honela geratzen da Xabier Etxano Egiaren puntuazioa:

I.1 azpiapartatua: 5,716 puntu.

I.2 azpiapartatua: 0 puntu.

I.3 azpiapartatua: 0,2750 puntu.

I.4 azpiapartatua: 0 puntu.

I. apartatua: 5,9910 puntu.

Lehiaketa-faseko guztizko puntuazioa: 8,1910 puntu.

Bigarrena.– Aldatzea Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2018ko urtarilaren 15eko Ebazpena (Hezkuntzako sailburuaren 2018ko otsailaren 26ko Aginduaren bidez iragarritako hautaketa-prozeduran lehiaketa-oposaketa gainditu zuten izangai hautatuen behin betiko zerrendak argitaratzeko), Xabier Etxano Egiari esleitutako puntuazioari dagokionez, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen kidegoko Makinen Mekanizazioa eta Mantentzea espezializazioan; 6,8340 puntu izatera igarotzen da.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Interneteko helbide honetan argitaratuko da <http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-educacion/>

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 8a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,  
JON KARLOS AGUIRRE HUERGA.